


UEUren udaberriko ikastaroen eskaintza

On-line, Eibar, Iruñea, Gasteiz. 2017



Udako Euskal Unibertsitatea
www.ueu.eus



On-line eskaintza

- Euskal Mitologia: kultura ondarea.
- Kolorezko zenbakiak. Matematika lantzen erregeleten bidez.
- Lurralde ulertu eta aztertzeko beste modu bat. GIS librea eta Geoprozesamendua (QGIS).
- Nola hezi genero-berdintasunean eskolaren eremuan.
- Sormen laborategia.

Ikasgelako eskaintza

- Adimen emozionala.
- Adingabeak eta Internet: arriskuak eta nortasun digitala.
- Argazkigintza digitala: zure reflex kamera ezagutzen.
- Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia.
- Bulba duten mutilak eta zakila duten neskak, haurren eta gazteen artean.
- Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen.
- Galerak, heriotza eta dolua haurren hezkuntzan.
- HTML aurkezpenak egiten Reveal.js plataformarekin.
- Psikomotrizitatea, mugimendu eta joko librea.
- TELP (taller d'espai lingüístic personal) tailerra.

Euskal Mitologia: kultura ondarea

Helburuak

- Mito eta mitologiaren koherentzia aztertzea.
- Pertsonaiak, jainuak eta haien arteko harremanak ezagutzea.
- Balio sinbolikoa jorratzea.
- Oinarritzko mitoak antzematea.

Nori zuzendua

Orokorki kultura ondarean eta bereziki euskal mitologian interesa duen orori.

Irakaslea

Ixabel Millet Heyries.
Kontalaria, idazlea eta formatzailea.
Hendaian kokaturiko Bi'Arte elkarteko zuzendaria.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 20 orduko ikastaroa.
- Datak: apirilaren 25etik maiatzaren 30era.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako saioen orduategia: 17:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 140,00 euro.
[Informazioa eta matrikula.](#)

Kolorezko zenbakiak. Matematika lantzen erregeleten bidez

Helburuak

- Etapako irakasleek elkar ezagutzea eta laguntza bultzatu, partekatzea.
- Ikasle guztien garapenean areagotzea, eragin positibo eta eraginkorra lortzea.
- Manipulazioa ikasleekin lantzea.
- Irudikapena sustatzea.
- Abstrakzioa lortzea.
- Deskonposaketa ulertzea eta indartzea.
- Eragiketak egiteko beste bide batzuk ezagutzea.

Nori zuzendua

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleei.

Irakaslea

Lorena Egidazu Ormazabal.
Fisikaria. Zientzieskola sortu zuen eta bertan ari da lanean.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 25 orduko ikastaroa.
- Data: martxoaren 1etik apirilaren 5era.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako saioen orduategia: 17:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 175 euro.
[Informazioa eta matrikula.](#)

Lurraldea ulertu eta aztertzeko beste modu bat. GIS librea eta Geoprozesamendua (QGIS)

Helburuak

- Azterketa espazialen gaineko oinarri bat hartzea eta horiek ulertzea.
- Geoprozesamenduko ariketak egiten ikastea.
- Ariketa ezberdinen konbinazioarekin emaitzak lortzea.

Nori zuzendua

GISean oinarritzko ezagumenduak dituen edonori. Lagungarria ere QGISean ohituta egotea.

Irakaslea

Mikel Ayestaran Olano. Geodesia eta Kartografian goi-mailako ingeniaria. [Gaindegia](#), GIS teknikaria.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 20 orduko ikastaroa.
- Datak: apirilaren 27tik maiatzaren 25era.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako saioen orduategia: 17:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 140 euro.
[Informazioa eta matrikula.](#)

Nola hezi genero-berdintasunean eskolaren eremuan

Helburuak

- Curriculum formalean sexismoa transmititzen den moduez jabetzea.
- Ezkutuko Curriculumean sexismoa nola transmititzen den atzemateko gaitasuna eskuratzea.
- Norberaren jokabidearen bitartez hezkidetza sustatzeko gaitasuna garatzea.
- Hezkidetza sustatze aldera, curriculum formalak eta ezkutukoak izan behar dituzten ezaugarriak ezagutzea.

Nori zuzendua

HH, LH, DBH eta Batxilergoko irakasleei egongo da zuzendua.

Irakasleak

Luixa Reizabal Arruabarrena: Psikologian doktorea, EHUko irakaslea eta UEUko kidea.

Maialen Eldua Azkarate: Psikopedagogian lizentziatua eta LHko pedagogo terapeutikoa.

Ainize Sarrionandia Peña: Psikologian doktorea eta EHUko irakaslea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 30 orduko ikastaroa.
- Datak: martxoaren 6tik apirilaren 6ra.
- Ikastaroa erabat on-line da, ez dauka ikasgelako saiorik.
- Matrikula-prezioa: 210 euro.
[Informazioa eta matrikula.](#)

Sormen laborategia

Helburuak

- Sormena lantzea, bakoitzak bere baitan dituen baliabideak kontutan hartuta.
- Sormena lantzeko erabilgarriak diren zenbait metodo ezagutzea eta lantzea.
- Sormen-ahalmenaren inguruko mitoekin apurtzea.
- Norberaren sormenerako ahalmenak lantzea.

Nori zuzendua

Irakasleei, begiraleei, monitoreei, gurasoei, etab.

Irakaslea

Bittor Camara Hierro. Arte Ederretan lizentziatua, Diseinu Grafikoan diplomatua eta Marrazketa espezialitateko irakaslea DBH eta Batxilergoan.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 20 orduko ikastaroa.
- Datak: martxoaren 4tik apirilaren 1era.
- Ikasgelako hiru saio eta gainontzekoa on-line.
- Ikasgelako saioen egunak: martxoak 3, 18 eta apirilak 1. ordutegia: 9:00-13:30.
- Matrikula-prezioa: 140,00 euro.
[Informazioa eta matrikula.](#)

Ikasgela

Adimen emozionala

Helburuak

- Ikastaro honetako partaideek beren burua gai honetan kokatzea, teorian eta praktikan.
- Ikastaro honetako partaideek beren burua hobeto ezagutzea gai honen inguruan dituzten errekurtsoak aurkituz eta erabiliz.
- Gaitasun emozionalak ezagutzea eta garatzen laguntzea.
- Adimen emozionala eskolan garatzeko esku-hartzea aztertzea (haurrekin, ikasle taldearekin, beste irakasleekin, gurasoekin).

Nori zuzendua

Irakasle, guraso, hezitzaile zein gaian interesa duen edonori zuzendua.

Irakaslea

Ester Alvarez Uria. Psikologoa; psikoterapia alorrean eta irakaskuntza alorrean esperientziaduna.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 18 orduko ikastaroa.
- Tokia: Iruñea. UEUren egoitza.
- Datak: apirilaren 1a eta 8a.
- Orduetgia: 9:00-14:00 / 15:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 126,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Adingabeak eta internet: arriskuak eta nortasun digitala

Helburuak

- Adingabeen errealitate digitala ezagutzea.
- Interneteko arriskuen ondorioak aztertzea.
- Nortasun digitala zaintzearen garrantziaz jabe izatea.
- Interneteko arriskuen prebentzioan familiak betetzen duen paperaren inguruan hausnartzea eta hori bideratzeko zenbait gako eskaintzea.

Nori zuzendua

Adingabeen (10-15) familiei.

Irakaslea

Rakel Gamito Gomez. Informatikaria, Haur Hezkuntzan graduatua eta Psikodidaktikan aditua. Gaur egun, "Adingabeak, Interneteko arriskuak eta nortasun digitala" arloan doktoregaia UPV/EHUn eta UEUko ikasgela birtualaren arduraduna.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: apirilaren 26tik maiatzaren 17ra (asteazkenetan).
- Orduetgia: 17:00-20:00.
- Matrikula-prezioa: 84,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Argazkigintza digitala: zure reflex kalera ezagutzen

Helburuak

- Reflex kamera zer eta nolakoa den ikastea.
- Reflex kamerak eskaintzen dituen argazki-motak ezagutzea.
- Reflex kameraren eskuzko agintean erabiltzen ikastea.

Nori zuzendua

Gaian interesa daukan edonori.

Irakaslea

Esther Gamito Gómez. Argazkilaria eta diseinatzaile grafikoa. Argazkilaritza eta diseinu grafikoko munduan urteak darama, besteak beste, kartelak, txostenak, liburuxkak eta web-orrialdeak egiten.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 8 orduko ikastaroa.
- Tokia: Iruñea. UEUren egoitza.
- Datak: martxoaren 4an.
- Orduetgia: 9:00-14:00 / 15:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 56,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia

Helburuak

- Haurren benetako beharretara egokitutako eskola baten nolakotasuna ezagutzea.
- Helduen formazio-prozesuan hausnarketa bibentzialak duen garrantziaz ohartaraztea.
- Ikastea bezain garrantzitsua da des-ikastearen prozesua.
- Eskola on batek ukan beharreko ezaugarriak jakitea.
- PedaHurrekin kalitatearekin egoteko eta aritzeko trebatzea.

Nori zuzendua

Irakasle, guraso, hezitzaile zein gaian interesa duen edonori zuzendua.

Irakasleak

Ane Ablanedo Larrion. Psikoterapia eta haurren prebentzioan aditua.
Ane Otxoteko Vaquero: GOIZTIRI eskola librea. Haur prebentzioan aditua.
Ainhoa Iturbe Tolosa: GOIZTIRI eskola librea. Psikologoa. Terapia sistemikoan aditua.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 30 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: maiatzaren 6a, 13a, 19a eta 20a.
- Orduetgia: larunbatetan (9:30-14:00 / 15:30-19:30). Ostiralean 16:30/21:00
- Matrikula-prezioa: 210 euro.
[Informazioa eta matrikula](#)

Bulba duten mutilak eta zakila duten neskak, haurren eta gazteen artean

Helburuak

- “Giza Izate Sexuala” ezagutzea ematea eta kontzeptu sexologiko orokorrak barneratzea .
- (Tran)sexualitatea ulertzeko kontzeptu zehatzak eskuratzeko ahalegina egitea.
- (Tran)sexualitate-egoeran dauden adingabeen kasuak azaltzea.
- Eskoletan azal litezkeen transexualitate-egoeren aurrean jarduteko protokoloa martxan jartzea.

Nori zuzendua

Hurrekin eta nerabeekin lan egiten duten profesionali, gurasoei eta interesa duen orori.

Irakaslea

Iñaki Goñi Garatea. Haur Hezkuntzako irakaslea, sexologoa eta Alcalá de Henareseko Unibertsitateko INCISEXeko (Instituto de Ciencias Sexológicas) aditua transexualitate-egoeran dauden adingabeen alorrean.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 ordu.
- Tokia: Iruñea. UEUren egoitza.
- Datak: otsailaren 4a eta 11a.
- Orduetgia: 10:00-17:30.
- Matrikula-prezioa: 84,00 euro.
[_ Informazioa eta matrikula.](#)

Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen

Helburuak

- Euskararen biziberritzearen orain arteko ibilbidearen hausnarketa kritikoa egitea esparru eta ikuspegi anitzetatik.
- Euskararen normalizazioan aurrera egiteko diskurtso eta praktika berriak proposatzea, esparruz esparru.
- Euskararen biziberritzearen ikuspegi globala lantzea, esparruen arteko sinergiak bilatuz.

Nori zuzendua

Ikastaroa maila profesional, akademiko zein pertsonalean euskararen biziberritzearekiko interesa duen norbanako, talde zein erakunde guztiei dago zuzendua.

Irakasleak

Jaime Altuna Ramirez, Alberto Barandiaran Amillano, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Jone M. Hernandez Garcia, Mikel Irizar Intxausti...

Ikastaroaren ezaugarriak

- 10 orduko ikastaroa.
- Tokia: Gasteiz. Oihaneder Euskararen Etxea.
- Datak: urtarrilaren 31tik maiatzaren 30era.
- Orduetgia: 19:00/20:45).
- Matrikula-prezioa: 45,00 euro.
[_ Informazioa eta matrikula.](#)

Galerak, heriotza eta dolua haurren hezkuntzan

Helburuak

- Norbere burua hobeto ezagutzea eta dituzten errekurtsioak aurkittzea.
- Gaiaren inguruko hurbilketa teoriko-praktikoa eskaintzea.
- Emozio-egoerak ezagutu, ulertu, eta laguntzeko bideak aztertzea.
- Dolu-prozesuan blokeatuta egon daitezkeen haurrak detektatzea, eta nola lagundu ezagutzea.
- Bizitza eta heriotzaren pedagogiaren inguruko hausnarketa bultzatzea.

Nori zuzendua

Gai honetan interesa duten pertsona heldu guztiei zuzenduta dago (irakasleak, hezitzaileak, gurasoak,...)

Irakaslea

Ester Alvarez Uria. Psikologoa; psikoterapia alorrean eta irakaskuntza alorrean esperientziaduna. Lan ildoak hezkuntzan: adimen emozionala eta galera eta doluen lanketa.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: apirilaren 29a eta maiatzaren 6a.
- Orduetgia: 9:30-13:30 / 15:00-17:00.
- Matrikula-prezioa: 84,00 euro. [Informazioa eta matrikula](#)

HTML aurkezpenak egiten Reveal.js plataformarekin

Helburuak

- HTML aurkezpenak eta Reveal.js ezagutzea.
- Reveal.js erabiliz HTML aurkezpenak egiten ikastea.
- Reveal.js-ko pluginak eta ezaugarri aurreratuak erabiltzen ikastea (PDF esportazioa, hizlariaren ikuspegia, emankizun kontrolatua...).
- Reveal.js-rako plugin bat egiten ikastea.

Nori zuzendua

Ikastaroak, klaseak, hitzaldiak edo dena delakoak eman behar dituelako aurkezpenak egin behar izaten dituen edonori dago zuzendua.

Irakaslea

Igor Leturia Azkarate. Informatikan doktorea, hizkuntz teknologietan ikertzailea Elhuyar Fundazioan, UEUkidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: maiatzaren 8a, 10a, 15a eta 17a.
- Orduetgia: 17:00-20:00.
- Matrikula-prezioa: 84,00 euro. [Informazioa eta matrikula](#)

Psikomotrizitatea, mugimendu eta joko librea

Helburuak

- Egitearen eta jolasaren plazeretik abiatuta, funtzio sinbolikoaren garapena sustatzea.
- Egitearen plazeraren bidez segurtasun-prozesuen garapena sustatzea.
- Haurraren jokia eta mugimendua ulertzea eta sakontzea.
- Hezitzailearen rol espezifikoa jorratzea eta integratzea.
- Haurrei laguntzeko tresnak eskuratzea.
- Haurrekiko begirada zabaltzea.

Nori zuzendua

Irakasle, guraso, hezitzaile zein gaian interesa duen edonori.

Irakasleak

Maite Itoiz Oroz. Tximeleta eskola librean bidelaguna, Arte Ederretan lizenziatua. Arteterapia, Psikomotrizitate eta Heziketa Sortzailean formakuntza. Pedagogia Montessori, Sistemikan eta Entzute Aktiboan aditua.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 orduko ikastaroa.
- Tokia: Iruñea. Civivox Jus La Rocha.
- Datak: martxoaren 4a, 11a eta 18a.
- Orduetgia: 10:00-14:00.
- Matrikula-prezioa: 84,00 euro.
[Informazioa eta matrikula](#)

TELP (taller d'espai lingüístic personal) tailerra

Helburuak

- Euskaraz egiteari lotutako deserosotasuna murriztea.
- Hizkuntza jokabide asertiboari esker gusturago egotea.
- Horretarako baliabide gehiago sortzea.

Nori zuzendua

Tailerreko hartzaile potentzialak euskaraz egiteko gogoia duten hiztunak (hizkuntza kontzientziadunak) izango dira. Oinarrizkoa da pertsonen euskararekiko kontzientzia izatea. Kontzientzia horretatik abiatuta, baliabideak eta estrategiak eskainiko zaizkie, euskaraz gehiago eta erosoago hitz egiteko.

Irakaslea

Ainhoa Lasa Agirre. EMUNeko aholkularia. Hizkuntza portaeran eragiten duten faktoreak aztertzen eta euskararen erabilera handitzeko motibazioan, jarreretan eta portaeretan eragiten lan egiten du.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 10 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: martxoaren 22a, 29a eta apirilaren 5a.
- Orduetgia: 17:00-20:30.
- Matrikula-prezioa: 70,00 euro.
[Informazioa eta matrikula](#)

Argibideak

Matrikulazioa

Otsailaren 1ean irekiko da eta ikastaroa hasi baino astebete lehenago itxiko da.

Matrikulazioa UEUren webgunetik: www.ueu.eus

UEUren egoitzetan egin daitezke:

- Eibar,
- Bilbo,
- Iruñea.

Matrikula-prezioak

Matrikula-prezio murriztua izango dute:

- ikasle, langabe eta erretiratuek (% 10eko beherapena)
- UEUkideek (% 25eko beherapena).

Diru-laguntzak

Diru-laguntzak on-line ikastaroetan eta Ikastetxe Nagusiko ikastaroetan matrikulatzen diren gipuzkoarrentzat. Ikus argibideak [webgunean](#).

Hainbat udalek beren herritarrei diru-laguntzak ematen dizkiete. Ikusi zerrenda gure [webgunean](#) eta galdetu zure udalean.

Ikastaro homologatuak

Ikastaroen homologaziorako eskaera egin dugu Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan. Erantzuna jasotakoan webgunean jakinaraziko dugu.

Argibideak

UEU - Udako Euskal Unibertsitatea
Isasi-Markeskoa Jauretzea
Eibar
tfnoa: 943 82 14 26
markeskoa@ueu.eus
Baratzeetako zeharkalea, 2.
Iruñea
tfnoa: 948 36 25 63
nafarroa@ueu.eus

www.ueu.eus

BABESLEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala